


# Alferrikako megaproiektuak: Egungo hirigintza-fenomenoaren definizioa.

*Laburpena: 50 eta 60ko hamarkadetako etxebizitza- eta hiri-beharrizan errealean eta horren paradigma utopiko izan ziren megaegituren aurrean, XX. mendearen hasieraren bereizgarri izan diren megaproiektuak haien karikatura bat baizik ez dira izan, gehiegizko tamainaren, gehienezko okupazioaren, espekulazioaren eta funtzionaltasunik ezaren alde soilik apustu eginez. Publikoa denaren izenean kudeatuak gehienak, zentzugabekeria ezegoki horien aurrean ezinbesteko aukera bezala ageri da Kenketa, garrantzizkoa eta beharrezkoa denaren bilaketan.*

*Abstract: Facing the real need of shelter and city of the 1950s and 1960s and mega-structures, their utopian paradigm, mega-constructions, characteristic of early 20th century, are not but the caricature of those, only focusing on extra size, maximum occupancy, speculation and lack of functionality. Unsuitable absurdities, generally managed in the name of the public, for which Substraction appears as an essential option in the search of what is important and necessary.*

Verónica Sánchez & Alejandro del Castillo.  
n'UNDO: Hiriaren eta lurraldearen berrarkitektura Kenketatik eta Uko Egitetik abiatuta.



*Gakohitzak: megaegitura, megaproiektua, kenketa, espekulazioa*

*Keywords: megastructure, megaproject, subtraction, speculation*



## Erredakzioan Itzulia

Hiri- eta lurralde-megaproiektuek azken urteetan izandako hirigintza-fenomenoaren definizioaren zati garrantzitsua eratzen dute. 50 eta 60ko hamarkadetan sortutako megaegituren planteamenduaren oinordeko arkitektoniko zuzenak direla iruditu arren, analisi xeheago batek batzuen eta besteen arteko ezberdintasun itzelak erakusten dizkigu.

Megaegiturak, izan ere, beharrizanaren aurrean irtenbideak bilatzeko ideia teoriko eta erradikal bezala sortu ziren. Etxebizitzarik gabe gelditutako ehunka-milaka laguni babesa emateko, Bigarren Mundu Gerrak suntsitutako hiri eta lurraldeak berreraikitze beharrizan errealean bat zegoen, eta jada probatutako mugimendu modernoaren zoritxarreko hirigintza-arauak gainditzeko, mugikortasunari eta aldaketei egokitutako etorkizuneko bizitexkeak definitzeko (New Babylon, situazionistak, metabolistak, etab.<sup>1</sup>) beharrizan praktikoa, intelektual eta ideologikoa.

Megaegiturei buruz hitz egiteak ez dakar tamainaren nolokotasuna bakarrik, jatorrian, haren esanahiak beste hainbat kontsiderazio dakartza berekin: modularra, hedagarria, funtzio anitzekoa, seriatua, teknologikoki optimizatu... Hiriaren funtzio guztiak bere baitan artikulatu

eta berraktibatzeko<sup>2</sup> aurrekaririk gabeko gaitasuna zuten edukiontzi trukagarri bezala sortu ziren.

Asmo handiko erraldoiak bailiran ulertzen ziren megaegiturak, baina planteamenduen arrazionaltasuna eta ondo ikertutako garapen hipotesiak galdu gabe. Horrek, proiektuon bideraezintasun ekonomiko zein funtzionala ondorioztatzen eraman zituen egileak, egikartzeko aukera gaitzetsiz eta konponbide errealean bezala baztertuz.

Egungo megaproiektu berriek ideia haien azaleko lekukoa jasotzen dute, gehiegizkoa eta faraonikoa den tamaina izanik haien apustu bakarra. Askoz neurri handiagoan ahaidetuko lirake XX. mendearen hasieran New Yorken sortu ziren etxe orratzen lobotomia (Koolhaas, 1977) handi eta gehienezko okupazio, espekulazio, anbizio politiko eta individualisten lasterketa zoroarekin. Ezaugarri horiek pertsonen bizitzetan jazo daitezkeen edozein hobekuntza edo idealen bilaketa hutsaltzen dute. Esku-hartzeak --beraien garrantzia funtzionalaz gabeturik-- finantza-aktibo bilakatzen dira, negozio-objektu soilak, tartean dauden diziplinen partetik ikuspegi kritiko edo konpromiso etikorik gabe sortuak, inongo hausnarketarik ezta beharrizanik gabe.

Botere-erakustaldi baten adierazpena dira gainera, diruak imajinatzen duen oro eraiki dezakeela egiaztatze saiakera. Hala ere, beharrizanetik sortzen ez diren neurrian, ez daukate inolako euskarri kultural, sozial ez ingurumenekorik. Askotan diru publikoan oinarrituta, megalomaniak sostengatzen dituen desorekatutako ekonomia baten ganean eraikitzen dira<sup>3</sup>.

<sup>1</sup> Proiektu edo talde hauek etorkizuneko hiriaren inguruko entseguak garatzen dituzten planetako puntu ezberdinetan, antzeko planteamenduetara iritsiz. Ikus Kenzo Tangeren Tokioko Badiako proiektua, Yona Friedmanen hiriak, Constant Nieuwenhuysen New Babylon bera, edo Archigram aldizkaria bere Walking Cityarekin zein ondorengoa bezalako iruzkinekin: «Bauhausaren irudi dekadentea ekidin nahi izan dugu, funtzionalismoa iraintzen baitu». Aurrerago ikusiko dugun bezala, XXI. mendeko megaeraikuntzak guztiz baztertzen ditu premisa hauek, «are handiagoa»-ren bakanalean murgilduz

<sup>2</sup> Ralph Wilcoxon, Fumihiko Maki eta Reyner Banhamen definizioaren arabera.  
<sup>3</sup> Sigfried Gideonek honi buruz ohartarazi gintuen 1943ko bere Monument-

Hiritargoari inongo konturik eman gabe, erabilerarik ez duten urbanizatu eta antolatutako milioika metro karraturen aurrean azaltzen den galdera, ondorengo da: nor da lurralde eta hirien etorkizuna ekonomikoki zein espazialki hipotekatzen duten erabakien erantzulea? Super-egitura erraldoi hauek zergatik ez dira oraindik konpondu gabe dagoen etxebizitza-gosea arintzeko erabili?

Erantzunek egiturazko garrantzia daukate. Inongo hausnarketa sakonik gabe, justifikatutako arrazoiketak gabe, ezta etorkizuneko belaunaldiekiko jasagarritasuna bermatuko duten baliozko argumenturik gabe ere, baliabide finitu bat kontsumitzen ari gara: lurraldea. Eta kontsumo horri gehitu behar zaio esku-hartze berrien jokalekuetarako aberastasun eta berezitasunez betetako kokapen pribilegiatuak aukeratzeko jarraitzeko joera ulergaitza, ageriko nagusikeria eta axolagabekeriak, jarduera horiek benetako esku-hartzea behar duten edota narriatuta dauden tokietan ardaztu ordez.

Baina badago irtenbiderik. **Kentzetik** abiatutako esku-hartzeak hainbat aukera planteatzen ditu: lehenik eta behin, behar-beharrezkoa ez den guztia egiteari utzi, eta soberan dagoen, eta bere desegokitasunarekin lurralde eta hiriak kutsatzen dituen oro **Ezabatu**<sup>4</sup>.

Bere abiapuntuan muturrekoa den jarrera-hartze honek gero eta beharrezkoagoa den ikuspegi berri batera behartzen gaitu, balio eta beharrezkoen berrikuspena, beste esku-hartze ikusmolde bat. Esku-hartzeok beharrezkoak diren bereiztera derrigortzen gaitu, ea nork erabakitzen dituen,

---

talitateari buruzko bederatzi puntu entseguan: «Egun, arkitekto modernoek badakite eraikinak ezin direla unitate isolatu bezala sortuak izan, irekitasun handiagoko hirigintza-eskemetan txertatuak egon behar dutela. Ez dago arkitekturaren eta antolamenduaren arteko mugarik... bien arteko korrelazioa beharrezkoa da».

4 n'UNDOK hainbatetan erabilitako praxi honek bere baitan hartzen ditu eraipen-txosten teknikoak, ondare kultural eta industrialaren birgaitze-proiektuak, hirigintza-hobekuntzarako hirigintza-planak edo lurraldearen zaintzearen eta hiri-trinkotzearen inguruko proiektu sarituak.

nork sustatu, eta zer beharizan betetzen duten; ondasun publikoen --lurraldea, inbertsioa, harreman-espazioak-- kudeaketaren eta haien justifikazioaren inguruko kritika eta hausnarketa bultzatzen ditu. Berrerabilpena, zaintza, mantenua edo egokitzapena bezalako modu egokiak behar ditu, eta horien sorrera sustatzen du.

**Kentzetik** abiatutako jarrera-hartzea arkitektura eta hirigintzatik sortzen den esku-hartze estrategia edo erreakzio kultural bat da, beste arlo batzuetara hedatzean indartzen dena.

**Egokitasuna** proiektu baten egikaritzearen benetako beharrezko erabakitzeko irizpide nagusi bezala azaltzen da, batzuetan alienagarria eta beti erakargarria suertatzen den nola horretan murgildu aurreko galdera bezala.

### **Bibliografia**

- Koolhaas, R. (1977): *Delirious New York*, Editorial GG, Bartzelona.
- Banham, R. (1977): *Megaestructuras. Futuro urbano del pasado reciente*, Editorial GG, Bartzelona.
- Sadler, S. (2005): *Archigram, Architecture without Architecture*, MIT Press Cambridge MA.
- Stravinski, I. (2009): *Poética Musical*, Editorial El Acantilado, Madril .

///